

Jacqueline Urla: "Oso gutxi dakigu oraindik euskara hitzunik noiz eta nola hitz egiten duten euskaraz"



Zaldi Ero

Liburu berria dakar Jacqueline Urla (Kansas City, 1956) antropologoa. *Being Basque, Speaking Basque* du izena eta, bertan, euskararen aldeko mugimenduek baliatzen dituzten estrategiak aztertu ditu. Ikerketa burutu ahal izateko hainbat egonaldi luze egin ditu Urlak Euskal Herrian joan den hogei urte honetan.

Berripapera: Zein estrategia aztertu dituzu *Being Basque, Speaking Basque* liburuan?

Jacqueline Urla: Estatistikaren erabilera, euskararen estandarizazioa, ikastolen sorrera, euskara elkarteak, gazte mugimenduak, euskal rock erradikala, irrati libreak... Hainbat eta hainbat eta, hala ere, hori ez da euskalgintzan gertatzen den guztia, baina atal bat. Estrategien arteko kontrastea egin dut nire lanean.

B.: Hurretik aztertu dituzu euskara elkarteak...

J.U.: Eta azken hamarkadan egin duten lana aipatuko nuke. Alderdi politikoen arteko zatiketak gainditu eta elkarte pluralagoak egiten saiatu dira. Ez da beti lortzen baina oso ahalegin garrantzizkoa da. Nik uste, luzaro, saiatze horrek oso ondorio onak ekarriko dituela.

B.: Zertan aldatu da euskalgintza?

J.U.: Egin ditudan elkarrizketen arabera, belaunaldi berriek eraginkortasun handiagoz jokatu nahiko lukete, profesionaltasunez. Militantziatik profesionaltasuneranzko jauzia egiterakoan, ordea, ikuspuntu ezberdinak bistaratu ohi dira jokabide pragmatikoen eta borondatez jokatu dutenen artean. Hauek askotariko jendea biltzen asmatu zuten euskararen berreskuratze prozesuan.

B.: Euskararen erabilera ere gai izarra da...

J.U.: Horretaz ari dira denak. Erabileraz eta, erabileraren barruan, erregistroez. Adierazkortasuna bultzatu nahi dute denek eta erregistro ezberdinei eta euskalkiei ari zaizkie arreta ematen. Orain hogeitaz inork ere ez zuen horretaz hitz egiten. Edo gai bazterrekoak ziren, behinik behin.

B.: "Hizketaren azterketa etnografikoak" egin behar direla esana duzu. Zertaz ari zara, zehazki?

J.U.: Hizkuntzaren erabilera naturala aztergai duen soziolinguistikaren alorrari buruz. Oso gutxi dakigu oraindik euskara hitzunik noiz eta nola hitz egiten duten euskaraz. Eta jakin beharra dago. Intuizio handia dago eta oso ona da batzuetan. Baina ez da nahikoa. Gai horretan arreta handiago jarri behar da.



Zaldi Ero

1

Jacqueline Urlarekin elkarrizketa

2

PERTSONAJEA:

Salbatore Mitxelena

LABURRAK

• *Hitza*, Oarsoaldeko euskarazko egunkaria

• Kukubiltxo 25 urte ospatzen

• CAF-Elhuyar sariaren deialdia

3

Euskalgintza deialdia

4

Hizkuntzen erabilera enpresetan

laburrak




Hitza, Oarsoaldeko euskarazko egunkaria

Euskarazko egunkaria du Oarsoaldeak ekainaz gero. Eguneroko berriak *Hitza* du izen eta joan den maiatzaren 20an kaleratu zuten 0 zenbakia. Oarsoaldeko euskara elkarteek, Euskal Herriko euskarazko egunkari berriak eta eskualdeko gizarte eragileek sortu dute *Hitza* argitaratuko duen enpresa. Eguneroko argitaratuko da *Hitza*, astelehenetan izan ezik, eta zortzi orrialde izango ditu.

Kukubiltxo 25 urte ospatzen



25. urteurrena ospatu du oraindik orain Kukubiltxo antzerki taldeak. Horren kariatara, *Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen* izeneko lana argitaratu dute, hau da, Kirmen Uribek idatzirikoa ipuina eta Oskorri taldeak ikuskizunerako sorturiko kantak. Nola ipuina hala musika, kaxa eder batean kaleratu dituzte Elkar argitaletxearen eskutik.




CAF-Elhuyar sarien deialdia

Lanak aurkezteko epea ireki dute CAF-Elhuyar sariak. Zientzia euskaraz zabaltzea dute helburu eta hiru sari nagusi izango dira, gazteentzako sari berezia, eta dibulgazio liburu onenarentzako beka. Azaroaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Informazio gehiago Elhuyar elkartearen webgunean: www.elhuyar.org

pertsonajea

SALBATORE MITXELENA



Salbatore Mitxelena. Frantziakotarra. Poeta eta saiakera-idazle. Arantzazu olerki bilduma eta Unamuno ta Abendats lanen egile. Imanol Unzurrunzagak haren biografia egin digu Bidegileak bildumako 27. karpetan.

Salbatore Mitxelena (Zarautz, 1919 – La Chaux de Fonds, 1965). Fedezko eta eskaldun giroan hazi zen Zarautzen. Artean mutikoa zela, Arantzazun eta Foruan ikasi zuen, frantziakotarretan. Oliteko apaiztegiaren zegoela harrapatu zuen gerrak. Ikasketak laga eta armadara joan behar izan zuen. Ez zen Erriberria (Oñitza) itzuli 1939 urte. Harrezkero, gerrak aztarna sakona utzi zuen Mitxelenaren obran. Berak idatzia da gerraostean Hego Euskal Herrian euskaraz argitara zen lehen liburua, *Arantzazu, Euskal Poema* (1949). Hamahiru urte ziren euskarazko lanik argitaratzen ez zela. Garai hartan bertan, *Bai* euskal aldizkari erdi klandestinoa sortu zuen Salbatorearen inguruan ibili ohi zen ikasle talde batek. Mitxelenak eragin handia izan zuen askorengan: Julian Alustiza, Luis Villasante, Bitoriano Gandiaga, Felix Bilbao... Baita *Jakin* sortu zuen taldearen baitan ere.

1951n Arantzazuko historia kontatu zuen, *Ama- semeak Arantzazuko kondairan*. Hizlari eta misiolari jardun zuen Gipuzkoan eta Nafarroan.

1955ean *Arraun eta Amets* olerki bilduma eman zuen argitara eta, garaitsuan, *Hogeikanta Arantzazuko* kaleratu zuen. Zortzi urteko egonaldia egin zuen Ameriketara, 1954tik 1962ra, misiolari. Ordukoak dira *Herri bat guruzbidean* eta *Confixus* antzerki liburua eta *Unamuno ta Abendats* (1958) saiakera. Hone-tan, Unamuno euskaltzale zela eta erlijioaren kezka bizi zuela frogatzen saiatu zen Salbatore Mitxelena.

Suitzan eman zituen azken urteak, langile joandako espainiarren kaperau, eta bertan hil zen, gaixorik, 47 urte zituela. Arantzazun hilotzatu zuten.



Euskalgintza deialdia

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanetan diharduten pertsona juridiko-privatuei 2003ko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen agindua argitaratuko da laister.

Horretarako, guztira, milioi bat eta mila bostehun eta hamazortzi (1.001.518,00) euro erabiliko dira.

Dirulaguntza-gaiak multzo hauetan banatu dira:

A.- Aisialdia:

- a.1 Euskararen erabilera aisialdian: haur eta gazteen hizkuntza-gaitasuna sendotzeko egitarauak, begiraleen prestakuntza, material-sorkuntza; euskara ludikotasunarekin lotzen duten egitasmoak.
- a.2 Euskaraz egindako jostailuak eta jokoak.
- a.3 Euskaraz egindako materialen erabilpena ziurtatzen duten egitasmoak, batik bat, haur eta gazteentzat prestatuak.

B.- Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak (ekintzak, proiektuak edota produktu berriak):

- Literatura-sariak
- Literatura-lehiaketak
- Literatura-gidak
- Euskara idatziaren alorrean ohiko jardunetik atera daitezkeen ekimen edota proposamenak. Betiere, egitasmoaren interesa eta bideragarritasuna dirulaguntzaren xedeari egokitzeko bazaio.

C.- Euskara etorkinei hurreratzeko egitasmoak, euskara etorkinen artean transmititzera bideratutako ekintza eta egitarauak eta etorkinak harreman-sare euskaldunetara erakartzeko egitasmoak.

D.- Euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaia eta euskararen normalizazio bidean eraginkorren izan diren egitasmoak eta omentzeko ekimenak.

E.- Zabalkunde handiko biltzarretan, jardunaldietan eta ospakizun berezietan euskararen presentzia bermatzeko ekimenak.

F.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) esparruan sortutako hizkuntza paisaia (errotulazioa, produktuen etiketajea, menuak...) euskalduntzeko ekimenak, kasuan kasuko udalekin elkarlanean nahiz sektoreko elkarrekin lankidetzan bideratutakoak.

G.- Euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak.

Agindu honen babesean dirulaguntza jaso ahal izateko hurrengo baldintzak bete beharko dituzte egitasmo guzti-guztiak:

- a) Autofinantzaketak gutxienez %30ekoak izatea.
- b) Euskara hutsez edo elebitan izatea. Elebitan den kasuetan euskarazko portzentajea beste hizkuntzetakoa bezainbestekoa edo handiago izango da.
- c) Dirulaguntza deialdi honetara aurkezten diren egitasmoek, ezinbestean, sexu bien arteko tratua berdina bermatu beharko dute.
- d) Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako helburuekin bat etorri beharko dute. Plan hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen erabaki baten bidez 1998ko uztailaren 28an.

Dirulaguntza-eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko orduan eta zenbatekoak finkatzeko, Balorazio-batzordeak ondoko irizpideak izango ditu kontuan:

1.1.- A, B, D, F eta G multzoetako irizpideak:

- a) Euskararen esparru geografikoa (nazioalorrekoa, lurralde mailakoa edota udalekoa): %35. Dirulaguntzagai diren udal mailako egitasmoen artean, EBPN onartu duten udalekin batera gauzatatutakoek dagokien puntuazio bikoitza izango dute.
- b) Euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Originaltasuna eta bideragarritasuna: %30.

- c) Autofinantzaketak: %20.
- d) Eskatzailearen izaera: esperientzia eta bermea, elkarlanean jardutea, ekintzaren hartzaile-kopurua: %15.

1.2.- C multzoko irizpideak:

- a) Euskararen esparru geografikoa (nazioalorrekoa, lurralde mailakoa edota udalekoa): %30.
- b) Euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Originaltasuna eta bideragarritasuna: %30.
- c) Autofinantzaketak: %20.
- d) Eskatzailearen izaera: %20. Etorkinen elkarrekin bultzatutako egitasmoek edota elkarrekin hauekin batera elkarlanean egindakoek, irizpide honi dagokionez, puntuazio gorena izango dute.

1.3.- E multzoko irizpideak:

- a) Euskararen esparru geografikoa (nazioarte mailakoa, nazioalorrekoa, lurralde mailakoa edota udalekoa): %35.
- b) Euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Originaltasuna eta bideragarritasuna: %30.
- c) Autofinantzaketak: %20.
- d) Eskatzailearen izaera: esperientzia eta bermea, elkarlanean jardutea, ekintzaren hartzaile-kopurua: %15.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza deitu ahal da. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza 945 01 81 11.



Hizkuntzen erabilera enpresetan

Gaiari buruzko nazioarteko mintegia izan da Quebec-en

EBPN



Quebec-eko eta Kataluniako hizkuntza-politikarako erakundeek antolatuta, ekainaren 9an eta 10ean nazioartean diharduten enpresetan hizkuntzen erabilerrari buruzko nazioarteko mintegia izan da Quebecen.

Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak, Jordi Roigé jaunak, Frantziako Hizkuntzen Ordezkaritza Nagusiko ordezkariak, Bernard Cerquiglini jaunak eta hizkuntza-politikaz arduratzen den Guy Dumas jaunak hasierako ekitaldia aurkeztu zuten.

Kataluniako eta Quebecoko adituekin batera, mintegian Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Miren Mateo, Jon Aizpurua eta Araceli Diaz de Lezana ere bertan izan dira. Hiru izan dira euskararen erabilerraren inguruan aurkeztu dituzten hitzaldiak.

Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 100 langiletik gorako enpresetako euskararen erabilerrari buruz egin den azterketa kuantitatiboaren emaitzak eta aurrera begira gara daitezkeen lan-lerroak aurkeztu dira.

Bestetik, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoetan (1991, 1996, 2001) oinarrituta eta langileen erantzunak kontuan, euskararen erabilera lan-munduan zertan den azaldu da.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren terminologia-alorreko politikaren lerro nagusiak eta esparru sozioekonomikoari begirako lehentasunak aztertu dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu dituen ponentzietako bi, adierazleen sistema definitzeko eta elikatuz joateko abian den proiektuaren barruan kokatu behar dira. Hain zuzen ere, proiektu horren helburu nagusia da Euskal Herriko hizkuntza-politikaren egoerari buruzko informazioa emateko baliagarria izango den adierazleen sistema garatzea, nazioarteko ereduak (Katalunia, Quebecokoarekin...) bateragarria izango dena.

Adierazle horiek aintzat hartu nahi dituzte hala hizkuntza-politikaren testuinguruko eragileak, nola bere kostuak, funtzionamendua eta emaitzak. Hartara, ez da iraupen jakineko proiektu bat, baizik eta jarduketaprograma iraunkor bat, aldian-aldian berrikusten eta gaurkotzen joan beharko dena.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta:

